



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Jokabide elkarrizketa egituratua. Aurretiazko informazioa.

Elkarrizketaren helburua:

Lan estiloa ezagutzea, lortu nahi den lanpostuan jarduteko behar diren trebetasun eta baliabide pertsonalekin lotuta.

Jarraibideak:

- Egingo zaizkizun galderei erantzuteko, lan-arloan izandako **esperientziak edo pasadizoak** gogoratzeko ahalegintxo bat egin beharko duzu. Laneko adibiderik topatzen ez baduzu, ingurune sozial eta/edo pertsonaleko egoerak baliatu ahalko dituzu.
- Zure **jokabidea baino ez** zaigu interesatzen, beraz, zure kontakizunean **beste pertsona batzuk** agertu arren, garrantzitsua da argi geratzea nola jokutzen duzun, hots, zeuk zer egiten duzun, ez zer egiten duten zure lan taldeak edo zure sailak. **Lehen pertsonan** hitz egiteak lagunduko dizu horretarako.
- Erantzuten joan ahala, segur aski galdera zehatzagoak egingo zaizkizu, kontatzen ari zaren ekintza eta ekintza gauzatzen ari den pertsona hobeto ezagutu ahal izateko.
- Ez alboratu garrantzitsutzat jotzen duzun informaziorik. Egindako galderei zehatz erantzun behar diezu.
- Har ezazu behar duzun denbora.

Elkarrizketaren iraupena. 15 minutu gutxi gorabehera, baloratu nahi den gaitasun bakoitzeko. Elkarrizketaren hasieran deskribatuko zaizkizu gaitasun horiek.

Konfidentzialtasuna: Adierazten duzuna isilpean gordeko da, eta datu pertsonalak babesteko legearekin bat etorri tratatu eta artxibatuko da.

Grabazioak Konfidentzialtasuna dela eta, elkarrizketak ez dira grabatzen. Hala ere, zuk nahi izanez gero, elkarrizketa grabatu ahalko duzu, elkarrizketa hasi aurretik nahi hori adierazita.